


Olinpia

buru eta bihotz





GUZTIEN ARIMA BAT BAKARRA

Greziako ideologian eta hezkuntza-sisteman garrantzi handia ematen zitzaion sasoian egiteari. Hori dela eta, Jaialdi Panehelenikoek garrantzi handia izan zuten.

Lau jaialdi izaten ziren (Joko Olinpikoak, Pitiko edo Pitio-ak, Istmiko-ak eta Nemea-ko Jokoak), nahiz eta entzute handiena Olinpia-koek lortu zuten. Hala izanik, antzinatea gainditu eta gaur eguneko Joko Olinpikoen espiritu inspiratzaile bihurtu dira.

Lehiaketa panehelenikoetan inoiz kondenatuak izan ez ziren greziar gizon aske guztiek parte han zezaketen.

Hasieran parte-hartzaileek greziarrak izan beharra bazuten ere, erromatarren konkistaren ostean kirolari siriarrak, egiptoarrak, frigiarrak... onartzen hasi ziren





OLIMPIA: ARRAKASTAREN ARIMA

Lehiaketa paneheleniko guztien artean, Joko Olinpikoak izan ziren garrantzi eta entzute handiena lortu zutenak Grezian eta baita Greziatik kanpo ere. Hain garrantzitsuak izan ziren, hauekin denbora Olinpiadetan banatzen zuen egutegia sortu zela, hots, Olinpiaden arteko denbora lau urtetan banatzen zuen egutegia.

Lehen lehiaketa k.a. 776.urtean izan zen. Hasieran egun bakarra irauten zuen, baina apurka luzatzen joan eta 6 egun irautera heldu zen. Horrela, proba kopurua handitu zen eta garaiko kirol-diziplina guztietan lehiatzera heldu ziren.


Probak udako egunik beroenetan egiten ziren, Hilabete Olinpikoa udako solstizioaren ondorengo ilbetearen ostean hasten baitzen. Horretan, 30 egunetan zehar, kirolariak jokoetarako entrenatu egiten ziren.



OIN ARINAK

Lasterketen ospea hain handia zen, ezen 200 metroko abiadura-proba izan zen lehen Joko Olinpikoek izan zuten lehiaketa bakarra.

Aurrekoaz gain, egon ziren beste lasterketa mota batzuk ere. Diakulos-ean estadioa birritan egiten zuten, Dolikhos-ak distantzia aldakorra zuen, Hipioan, zaldi lasterketan bezala, lau estadio oso egin behar ziren eta Hiplitodromos-ean, militar jatorria zuenez, kaskoa, ezkutua eta zango-babesak jantzita egin behar zen korrika.





ZALDI HEZITZAILEAK

25.olinpiadaz geroztik (k.a.680), zaldi-probak sartu ziren jokoetan. Lehiaketa hauetan aberatsek bakarrik har zezaketen parte, zaldiak baitzituzten. Horrela, emakumeek parte hartzea posible izan zen, zaldien jabe baziren.

Bi proba egiten ziren: zelarik gabe edo soilik ehunezko alfonbratxo baten laguntzaz egiten zena eta biga edo koadrigetan egiten zena. Lehenengoan 8 bira eman behar zitzaizkion hipodromoari, bigarreanean, aldiz, 12.

Kasu guztietan irabazlea ez zen kasuan kasuko zaldikoa edo auriga, zaldiaren jabea baizik





AHALIK ETA URRUNEN HELTZEA

Luzera jauzia

Lehiaketa honek zuen gauzarik aipagarriena hauxe da: kirolariek harrizko, berunezko edo brontzezko pisuak eramaten zituztela eskuetan, saltoa ematean bultzada handiagoa lortzeko.

Disko jaurtiketa

Proba burdinazko xafla borobil bat jaurtitzean zetzan. Kirolari guztiek xafla bera erabiltzen zuten eta irabazleak xafla horixe bera jasotzen zuen oparitzat.

Xabalina jaurtiketa

Xabalinak metalezko punta zuen eta bere luzera pertsona batek izan zezakeenaren antzekoa zuen. Bi jaurtiketa mota egiten zituzten xabalinarekin: luzera neurtzeko bata eta doitasuna neurtzeko bestea.





BORROKALARI NEKAEZINAK

Borroka

Antzinako Grezian bi modutan egiten zituzten borrokak: zutik eta lurrean. Bietan lehiakideek, gutxienez 5 erasoaldi zituen lehiaketan, aurkaria 3 aldiz jausarazi behar zuten.

Pancraccio-a

Borroka eta boxeoaren arteko lehiaketa zen. Honetan, aurkariari behiak ateratzea edo sudurrean atzamarrak sartzea izan ezik, denetarik egin zitekeen. Probak kirolarietakoren batek amore eman arte irauten zuen.

Pugilato-a

Kiroletan gogorrena zen. Lehiakideek larru zimurtuz egindako uhalak jartzen zituzten esku eta besoetan, eta hauekin jotzen zituzten aurkariak. Borroka hauek ez zuten erasoaldirik, eta lehiakideren batek amore eman arte edota konorte barik jausi arte irauten zuen.





PENTATLONA

Lehiaketa honek bost kirol-diziplina hartzen zituen barne:

- Disko jaurtiketa
- Xabalina jaurtiketa
- Luzera jauzia
- Lasterketa
- Pugilato-a

Pentatlona disko- eta xabalina-jaurtiketekin eta jauziekin hasten zen. Kanporatuak ez ziren lehiakideek abiadura lasterketa egiten zuten eta, azkenik, horretan kaleratuak ez zirenek pugilato-ko kanporaketetan hartzen zuten parte.





ADI, PREST... JA!

Lehiaketak hasi baino lehen, bakearen heraldoek edo espondoforo-ek Greziako leku ezberdinetara bidaiatzen zuten Jokoen hasiera data aditzera ematera. Honekin batera, Bakealdi Sakratua edo *Ekecheiria* hasten zen, hots, lan militarrek bertan behera uzten zireneko garaia. Ez hori bakarrik, lurraldeetako mugak zabaltzen ziren eta Olinpiarako bidean zeuden erromesak ukiezin bihurtzen ziren. Horrela, nahi zuen guztiak jokoetara joan ahal izatea ahalbideratzen zen.

Jokoak lehiakideek Elis hiritik Olinpia-ra arte egiten zuten prozesio batekin hasten ziren. Ondoren, Zeus-en omenez sakrifizioa egiten zen.

Garaiaren arabera, iraupen ezberdina izan zuten, sei egun izatera finkatu ziren arte





BARRUTI OLINPIKOA

Barruti sakratua handia bazen ere, kirola egiteko bereziki erabiltzen ziren eraikuntza bakarrak gimnasioa, estadioa eta hipodromoa ziren. Hauekin batera, jokoan jainkoak gurtzeko tenpluak zeuden, baita jokoan garapen egokirako beharrezkoak ziren beste eraikuntza batzuk ere.

Gimnasioa

Leku hau Greziako atletismoaren gunea zenez, gorputzaren perfekzioa lortzeko erabiltzen zuten kirolariek. Bertako toki garrantzitsuenak palestra eta gimnasio irekia ziren. Horretaz gain, aldagelak, komunak eta masaje- eta lurrun-gelak zituzten bainu-lekuak zeuden.

Palestraren erdian lurra zuen patio bat zegoen. Honetan bi zulo egoten ziren: bata zutik egiten ziren borroketarako, pugilato-etarako eta jauziak entrenatzeko izaten zen eta harea zuen bakarrik; besteak buztina eta olio zituen eta lurrean borrokatzen zirenek eta pancraccio-a egiten zutenek erabiltzen zuten.



Estadioa

Eraikuntza honetan lehiaketa gimnastikoak ospatzen ziren. Olimpia-ko estadioak 10.000 ikusle har zitzakeen barne eta lur-pistak 212m luze eta 30-34m zabal zituen.

Irteera eta helmuga kareharrizko estrukturen bidez zeuden seinlatuak eta 20 kaleak zutabe bidez banatzen ziren.

Hipodromoa

Barruti honetan zaldi-probak egiten ziren. Pista luzeak 600m luze eta 200m zabal zituen. Erdian hesi txiki bat zegoen eta honen inguruan egiten ziren lasterketak. Horretaz gain, muturretako bakoitza zutabe batek mugatzen zuen eta berau bira emateko erabiltzen zen.





BILBOKO BERREGINEN MUSEOA
MUSEO REPRODUCCIONES BILBAO

